

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala**

Lehiaketa iragarkia: Bermeoko udal azokan hutsik dauden postuen aprobetxamendu pribatiborako emakida administratiboa ematea.

2023ko azaroaren 21ean Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiarekin bat, iragarki honen bidez Bermeoko udal azokan hutsik dauden postuen aprobetxamendu pribatiborako emakida administratiboa esleitzeko baldintzak arautzen dituen deialdia egiten da.

Helburua: Txikizkako salmenta, baimenduta dauden produktuak saltzeko.

1. *Erakunde esleitzaila*
 - a) Erakundea: Bermeoko Udala.
 - b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Idazkaritza Saila.
 - c) Espediente-zenbakia: IDA_DEK0773_2023.
2. *Dokumentazioa eta informazioa lortzea*
 - a) Bulegoa: Idazkaritza Saila.
 - b) Helbidea: Irakaskintza, 14-16.
 - c) Herria eta posta kodea: Bermeo-48370.
 - d) Telefonoa: 946179105.
 - e) Webgunea: www.bermeo.eus
 - f) Posta elektronikoa: idazkaritza@bermeo.eus
3. *Lizitazioaren xedea*
 - a) Mota: Jabari publikoa ematea.
 - b) Deskribapena: Bermeoko udal mugapean, udal azokan hutsik dauden postuen aprobetxamendu pribatiborako emakida administratiboa ematea.
 - c) Iraupena: Erabilerarako emakidaren iraupena 30 urtekoa izango da, emakida formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta ezin izango da luzatu.
4. *Izapideak eta prozedura*
 - a) Tramitazioa: Arrunta.
 - b) Prozedura: Irekia.
 - c) Modua: Enkantea.
 - d) Lizitaziorako gutxieneko kanona:
 - 1go modulua: 135,47 euro/hileko.
 - 2. modulua: 120,11 euro/hileko.
5. *Bermeak*
 - a) Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.
 - b) Behin betiko bermea:
 - 1go modulua: 589,37 euro.
 - 2. modulua: 458,40 euro.
6. *Eskaintzak aurkeztea*
 - a) Aurkezteko azken eguna: 15 egun baliouduneko epean aurkeztu beharko dira, oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.



- b) Aurkeztu beharreko agiriak: lizitatuzaileek bi gutun-azal edo artxibo elektronikotan aurkeztuko dituzte beren proposamenak, Administrazio Klausula Berezien Agiri-ko 12. klausulan adierazitako moduan eta edukiarekin.
 - c) Aurkezteko modua, hurrengo edozein aukera erabiliz:
 - Berhaz Herritarrendako Laguntza Bulegoa, Ertzilla kalea, 6-8, 48370-Bermeo.
 - Bermeoko Udaleko kontratatzailearen profilean: <https://bermeo.eus/1470.html>
 - Legez aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.
7. *Eskaintzak irekitzea*
- a) Erakundea: Kontratazio-mahaia.
 - b) Eguna: Bermeoko Udalaren web orrian eta Euskadiko Kontratazio Plataformako iragarki-taulan adierazitako eguna eta ordua.
- Bermeon, 2023ko azaroaren 21ean. — Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly